  - 4.o trimestre: 10 a 25 de octubre.
- Socios Polideportivo:
  - Abono anual: 1 a 15 de julio.
  - Abono 1er semestre: 1 a 15 enero.
- Impuesto sobre Bienes Inmuebles (I.B.I): Del 15 de mayo al 30 junio.
- Impuesto sobre Actividades Económicas (I.A.E.): Del 1 de octubre al 10 de noviembre.



## Se han realizado trabajos de asfaltado en la entrada del Centro de Salud, en Mikelar y en la calle Uhaitz y se prevén obras de mejora

El Ayuntamiento de Lazkao ha realizado trabajos de asfaltado en la entrada del centro de Salud, en Mikelar y en la calle Uhaitz. Para reforzar la seguridad peatonal de estas zonas, el Ayuntamiento está realizando pasos de cebra elevados entre el Polideportivo y el Centro de Salud, frente al edificio Mikelar 12 y frente a Uhaitz 6. Para poder llevar a cabo estos trabajos, ha sido necesario de antemano acondicionar las aceras de la zona.

Por otro lado, se prevén trabajos de asfaltado en Lazkaomendi, con el objetivo de reparar los baches y culminar el mantenimiento de la carretera. Estos trabajos se realizarán en la carretera del camino rural de Lartxai a Albitxu Behekoa y en la carretera de Lartxai al caserío Abalin. El Ayuntamiento ha declarado que el objetivo de estos trabajos es que Lazkao sea "más accesible y renovado": "el mantenimiento adecuado del pavimento de las calles tiene una repercusión directa en la seguridad ciudadana".



## Lazkaoko Udalak arratoien aurkako tratamendu prebentiboak bikoiztu ditu

Udalak azaldu duenez, azken urteotan arratoien kopuruak, oro har, gora egin du ziklo biologikoen bizkortzearen eta tenperaturen igoeren ondorioz. Hori dela eta, egungo zerbitzua indartuko da, bai zuzentzailea bai prebentziozkoa, eta kontrol-puntuak zabalduko dira estolderia-sarean, eta auzotarrek ikusi berri dituzten eremuetan.

**Udaltzaingoak liztorren bi habi kendu ditu**

Lazkaoko Udaltzaingoak liztorren bi habia kendu ditu Lazkaomendin. Udaltzaingoak ikuskapenak indartuko ditu datozen asteetan, lehen fasean dauden liztor habiak detektatu eta kentzeko. Ildo horretan, herritarrei eskatzen zaie Udalari abisatzeko liztorren habiak daudela 943 08 80 80 telefonoaren bidez. Kendutako habiak Gipuzkoako Foru Aldundiaren erregistrora eramango dira.

## El Ayuntamiento de Lazkao duplica los tratamientos preventivos contra las ratas

En los últimos años, el número de roedores ha aumentado, en general, debido a la aceleración de los ciclos biológicos e incrementos de temperaturas. Ante ello, se reforzará el servicio actual, tanto el correctivo como el preventivo, ampliando los puntos de control en la red de alcantarillado en general, particularmente, en aquellas zonas donde se han avistado recientemente por parte de los vecinos.

**La Policía Municipal retira dos nidos de avispas**

La Policía Municipal de Lazkao ha procedido a la retirada de dos nidos de avispas en primera fase en Lazkaomendi. La Policía Municipal reforzará en las próximas semanas las inspecciones para detectar y retirar el mayor número de nidos avispas que se encuentran en primera fase. En este sentido, se solicita a los vecinos que avisen al Ayuntamiento de la presencia de nidos de avispas a través del teléfono 943 08 80 80. Los nidos retirados se elevan al registro de la Diputación Foral de Gipuzkoa.



# 628 haur eta gaztek eman dute izena Lazkaoko aisialdi, kirol eta kultur ikastaroetan

- Aurten talde txiki eta itxietan, eta gune banatuetan, ari dira ematen, koronabirusak eragindako egoeragatik.

Lazkaoko Udalak udako aisialdirako kultur eta kirol eskaintza zabala egin du aurten ere, baldintza berezietan, egoerak eskatu bezala.Guztira 628 haur eta gazte ari dira parte-hartzen, talde txiki eta itxietan eta gune desberdinetan, segurtasuna bermatzeko.

H.H. 3tik L.H.6ra bitarteko 151 haur egongo dira aisialdi zerbitzuan, talde txikietan begirale desberdinekin, ekainaren 29tik uztailaren 24ra arte.

6 eta 12 urte bitartekoei dagokienez, kulturako ikastaroetan, berriz, 35 umeek eman dute izena eta kirolanitzeko jardueretan 122k. 105 haur ibiliko dira futbolean eta 73 piraguismoan. Irristaketa 10 haurrek aukeratu dute eta beste 30ek tenisa. Mendiko txirrinduan 23 umeek eman dute izena eta pilotan 11k. Gimnasia erritmikoan 12 pertsona apuntatu dira eta kirol dantzan 22.

12 eta 18 urte bitarteko gaztetxoek astearte eta ostegunetan dituzte ziklo indoor eta body gazte saioak. Lehenean 23 pertsonak eman dute izena, eta, bigarrenean, 11k.

Haurrak ikastaroetara maskararekin joan behar dute eta 2 metroko distantzia bermatu ezin daitekeen ekintzetan ezinbestekoa da maskara erabiltzea. Maskara eramaten ez duenak ezingo du ikastaroan gelditu. Bestalde, haur guztiek etxetik tenperatura hartuta eta eskuak garbituta joan behar izaten dute eta begiraleek ere tenperatura hartzen diete ekintzak hasi aurretik. Ondo badago, guraso/tutoreari haurra bertan uzteko baimena emango dio.

Guraso edo tutoreek telefono zenbaki bat eman dute edozein ezusteko gertatuz gero harremanetan jartzeko. Haurrak jaso eta uzteko tokietan bi metroko distantzia mantendu behar izaten dute gainerako guraso/tutoreekin.

Ikastaroan zehar, begiraleek osasun zainketa ohitura batzuk betetzen dituzte eta haur guztiek dute beti eskura gela, papera, desinfektantea eta ura eskuak garbitzeko. Bestalde, kontaktu fisiko handia duten ekintzak saihestuko dira eta guneetan babes neurrien inguruko kartelak jarri dira. Ekintzak gune irekietan izan dira ahal den neurrian, eta taldeak ez dira beste talde batzuekin elkartzen.

Haur bakoitzak bere hamarretakoa eramanten du egunero. Egunen batean haurren bat ikastarora joaten ez bada, begiraleari jakinarazi beharko zaio arrazoia eta garrantzitsua da parte hartzaileetako norbaitek Covid-19 frogetan positibo emanez gero, jakinaraztea. Kasu horretan, talde horretako udako programa bertan behera geldituko litzateke eta haur guztiek etxean egon beharko lukete 14 egunez.

> *2 metroko distantzia bermatu ezin daitekeen ekintzetan ezinbestekoa da maskara erabiltzea*

> *Ikastaroan zehar, begiraleek osasun zainketa ohitura batzuk betetzen dituzte eta haur guztiek dute beti eskura gela, papera, desinfektantea eta ura eskuak garbitzeko*



*En aquellas acciones en las que no se pueda garantizar una distancia de 2 metros es imprescindible el uso de mascarilla.*

*Durante el curso, los monitores cumplirán una serie de hábitos de cuidados sanitarios y todos los niños tienen siempre a su disposición papel, el gel desinfectante y el agua para lavarse las manos.*



# 628 niños y jóvenes se han inscrito en los cursos de ocio, deporte y cultura de Lazkao

El Ayuntamiento de Lazkao ha elaborado un año más una amplia oferta cultural, deportiva y de ocio estival en condiciones especiales, tal y como exige la situación. Un total de 628 niños y jóvenes participan en pequeños y cerrados grupos y en diferentes zonas para garantizar la seguridad.

De 3º de educación infantil al 6º de primaria hay 151 niños en el servicio de ocio, con diferentes monitores en pequeños grupos, desde el 29 de junio hasta el 24 de julio.

En cuanto a la edad de 6 a 12 años, en los cursos de cultura se han inscrito 35 niños y en las actividades deportivas 122. 105 niños juegan al fútbol y 73 al piragüismo. El patinaje ha sido elegido por 10 niños y por otros 30 el tenis. En bicicleta de montaña se han inscrito 23 niños y en pelota 11. En gimnasia rítmica se han apuntado 12 personas y en danza deportiva 22.

Los jóvenes de entre 12 y 18 años tienen sesiones de ciclo indoor y body juvenil los martes y jueves. En la primera se han inscrito 23 personas y en la segunda, 11.

Los niños y niñas deben acudir a los cursos con mascarilla y en aquellas acciones en las que no se pueda garantizar una distancia de 2 metros será imprescindible su uso. Quien no lleve máscara no podrá participar en el curso.

Por otro lado, todos los niños deben ir desde casa con la temperatura tomada y las manos lavadas y los monitores, así mismo, les toman la temperatura antes de empezar el curso. En caso de resultado negativo, autorizará al progenitor/tutor para que deje en la actividad al niño o niña.

Los padres o tutores han facilitado un número de teléfono para contactar en caso de cualquier imprevisto o necesidad.

En los lugares de recogida de niños y niñas se mantiene una distancia de dos metros con el resto de padres/tutores.

Durante el curso, los monitores cumplirán una serie de hábitos de cuidados sanitarios y todos los niños tienen siempre a su disposición papel, el gel desinfectante y el agua para lavarse las manos.

Por otro lado, se evitan acciones con alto contacto físico y se han colocado carteles sobre medidas de protección en las zonas. Las actividades tienen lugar en espacios abiertos en la medida de lo posible y los grupos no se reunen con otros grupos. Cada niño lleva su merienda diaria. Si algún día algún niño o niña no acude al curso, se informa al monitor o monitora del motivo y es importante que si alguno de los participantes da positivo en las pruebas Covid-19 se lo comunique. En este caso, el programa de verano de este grupo quedaría suspendido y todos los niños deberían permanecer en casa 14 días.


















# AURTENGO SAN PRUDENTZIO JAI BEREZIAK IRUDITAN





























Gurutze 1 eta 2ko urbanizazio lanak amaitu dira Lazkaon: guztira 45 aparkaleku sortu eta azaleko urbanizazio lanak burutu dira.

# Amaitu dira Lazkaoko Gurutze 1 eta 2ko urbanizazio lanak eta aurrera doaz Larreategiko gunearen obrak

Lazkaoko Udalak "herria eraberritu eta irisgarriago egiteko" lanekin aurrera darrai. Amaitu dira Gurutze 1-2 eta Hirigoien 12-20 artean dagoen plazan garajeak eraikitzeko eta hauen gaineko urbanizazioa burutzeko lanak. Guztira 45 aparkaleku egin dira: 33 Gurutze 2 parean eta 12 Gurutze 1 eta 2 artean. Behin azpiko garajeak eraikita, gune berriko instalazioak berritu dira: ur sarea, saneamendua, argiteria, telefonia eta energia elektrikoko sareak, eta zoladura berria egin da plaza osoan, irisgarritasun neurriak betez. Maiatzetik dago plaza irekita eta erabilgarri. Bestalde, Gurutze 4 eta 5 eraikinen artea 4 aparkaleku berri sortu dira bertako loretegia berregokituz.

Martxan dira, baita ere, Larreategiko gunearen garapenaren barne urbanizazioko beste bi fase. Obraren hurrengo fasean egokituko dira Larreategi etxearen atzealdean eraiki daitezkeen bi familientzako bi etxebizitzako eraikinetara beharrezkoak diren instalazioak, oinezkoentzako espaloiak eta errepideak. Errepide honek gerora Zubizkitza atzealdeko errepidearekin lotura izango du.

> *Lazkaoko Udalak "herria eraberritu eta irisgarriago egiteko" lanekin aurrera darrai*







# Finalizadas las obras de urbanización de Gurutze 1 y 2 de Lazkao, avanzan las obras de la zona de Larreategi

Han finalizado las obras de urbanización de Gurutze 1 y 2 en Lazkao, creando un total de 45 plazas de aparcamiento y ejecutando la urbanización de la plaza superior.

El Ayuntamiento de Lazkao continúa con las obras para "reformar y hacer más accesible el pueblo". Ya han finalizado las obras de construcción y urbanización de garajes en Gurutze 1-2 e Hirigoien 12-20. En total se han construido 45 aparcamientos: 33 a la altura de Gurutze 2, y 12 plazas entre Gurutze 1 y 2. Una vez construidos los garajes inferiores, se han renovado las instalaciones del nuevo espacio: red de agua, saneamiento, alumbrado, telefonía y redes de energía eléctrica, y se ha realizado un nuevo pavimento en toda la plaza, cumpliendo las medidas de accesibilidad. La plaza está abierta y disponible desde mayo. Por otro lado, entre los edificios Gurutze 4 y Gurutze 5 se han creado 4 nuevos aparcamientos readaptando su jardín.

También están en marcha otras dos fases de urbanización interna del desarrollo de la zona de Larreategi. En la siguiente fase de la obra se acondicionarán las instalaciones, aceras peatonales y carreteras necesarias para los edificios de dos viviendas para familias, que se construirán en la parte trasera de la casa Larreategi. Esta carretera conectará posteriormente con la carretera trasera de Zubizkitza.

*El Ayuntamiento de Lazkao continúa con las obras para "reformar y hacer más accesible el municipio".*

# LAZKAOKO UDALAREN ARRETA ZERBITZU TELEMATIKOAK ETA **BAKQ SISTEMA**

Koronabirusak gizarteko hainbat esparru eraldatu ditu, eta bitarteko berrietara moldatzen ari gara guztiok oraindik. Administrazioak eta enpresek euskarri digitalak indartu dituzte zerbitzuak telematikoki eman ahal izateko, eta etxetik lan egitearen abantailak eta deserosotasunak ezagutu ditugu guztiok.

Egoera berri honetan, Lazkaoko Udala ere zerbitzuak telematikoki eskaintzeko bidean murgildu da. Web orrialdean digitalki eskura daitezkeen zerbitzuen atal bat dago, ordainagiriak, Sarrera erregistroa, espedienteak, biztanleen errolda, isunak, tasak eta zergak, jendaurreko erakustaldiak eta dokumentuen kontsulta egiteko.

BakQ sisteman trebatu dira Udaleko langileak, herritarrei arreta telematikoa eskaintzeko eta beharrezko zerbitzuak digitalki eskuragarri izan ditzaten. BakQ identifikazio elektronikoko bitarteko berri bat da, tramiteak telematikoki egiteko.

BakQ sistemarekin Euskal Herriko edozein administraziotan burutu daiteke izapide oro elektronikoki, segurtasunez eta era erabilterrazean, bai Udal, Foru Aldundi edota Eusko Jaurlaritzan, esaterako.

BakQ sisteman, erabiltzailearen NANarekin/AIZarekin bat datorren identifikatzaile bat eta pasahitz bat egokitzen zaizkio erabiltzaileari. Bestalde, 16 posizio dituen koordenatu-joko bat ematen zaio erabiltzaileari, segurtasun elementu erantsi gisa. Ziurtagiri kualifikatu bat ere ematen da kasu honetan, gordailu zentralizatu batean igortzen dena eta sinatzeko ekintzetarako balioko duena.

BakQ ere eskatu egin behar da eta, ziurtagiria kualifikatua denez, identifikazio presentziala behar du, edo identifikazio elektronikoko baliozko beste bitarteko bat. BakQ online eskatu daiteke soilik NAN elektronikoa izanda edo Izenperen herritarren ziurtagiria edukita. Bestela, aurrez aurreko arretarako puntu batera joan eta bertan egin behar da BakQ eskaera. Goierrin arreta-puntu ugari daude udaletxeetan, Lazkaon bertan, adibidez.

Teknologia berriek administrazioarekin komunikatzeko bide berriak ireki dituzte eta, ahal den heinean, aukera telematikoa eskaintzea ezinbestekoa da gaur egun. Lazkaoko Udaleko langileak BakQ sisteman prestatu dira herritarrei digitalki arreta eskaini ahal izateko, eta etorkizuneko aldaketa eta berrikuntzetara moldatzen jarraituko dute, zerbitzu eraginkorrena emateko helburuarekin.

**BakQ sistemarekin Euskal Herriko edozein administraziotan burutu daiteke izapide oro elektronikoki, segurtasunez eta era erabilterrazean**

**BakQ permite realizar todos los trámites de forma electrónica, segura y accesible en cualquier administración del País Vasco**

# SERVICIOS TELEMÁTICOS DE ATENCIÓN DEL AYUNTAMIENTO DE LAZKAO Y **SISTEMA BAKQ**

El coronavirus ha transformado diversos ámbitos de la sociedad y todos nos estamos adaptando aún a los nuevos medios. La administración y las empresas han reforzado los soportes digitales para poder prestar servicios telemáticamente y todos hemos conocido las ventajas e incomodidades de trabajar desde casa.

En esta nueva situación, el Ayuntamiento de Lazkao también se ha embarcado en la oferta telemática de servicios. En la página web existe un apartado de servicios accesibles digitalmente para la realización y consulta de recibos, registro de entrada, expedientes, censo de habitantes, multas, tasas e impuestos, exposiciones públicas y consulta de documentos.

El personal del Ayuntamiento se ha formado en el sistema BakQ para ofrecer atención telemática a la ciudadanía, para que dispongan digitalmente de los servicios necesarios. BakQ es un nuevo medio de identificación electrónica para la tramitación telemática.

BakQ permite realizar todos los trámites de forma electrónica, segura y accesible en cualquier administración del País Vasco, ya sea Ayuntamiento, Diputación Foral o Gobierno Vasco.

En el sistema BakQ a cada usuario se le asigna un número de referencia que coincide con su DNI/NIE y se le facilita una contraseña. Por otro lado, se entrega al usuario un juego de coordenadas con 16 posiciones como elemento de seguridad añadido. También se proporciona, en este caso, un certificado cualificado que se emite en un repositorio centralizado y que sirve para las acciones de firma.

El BakQ también hay que solicitarlo y, dado que el certificado es cualificado, requiere identificación presencial u otro medio válido de identificación electrónica. BakQ sólo se puede solicitar online con DNI electrónico o certificado ciudadano de Izenpe. En caso de no tener esa documentación, hay que acudir a un punto de atención presencial para realizar la solicitud del BakQ. En Goierri existen numerosos puntos de atención en los ayuntamientos, en el de Lazkao, por ejemplo.

Las nuevas tecnologías han abierto nuevas vías de comunicación con la administración y, en la medida de lo posible, es imprescindible ofrecer una opción telemática hoy en día. El personal del Ayuntamiento de Lazkao se ha formado en el sistema BakQ para poder atender digitalmente a los ciudadanos, y seguirán adaptándose a futuros cambios e innovaciones con el objetivo de prestar el servicio más eficiente.



# Lazkaoko hiru auzoetako kale argiak berritu eta LED teknologiara aldatu ditu Udalak

Lazkaoko Gurutze eta Zubizkitza auzoetan kale argiak LED teknologiara aldatu ditu Udalak eta San Prudentzio auzoko argiteria hobetu, jasangarritasun energetikoaren alde egiteko eta eremuetako argiteria hobetzeko.



LED argiteria jarri da Gurutze eta Zubizkitza auzoetan eta San Prudentzion kale-argiak ordezkatu dira, lortuko den jasangarritasun energetikoaz gain, eremuetako argiteria hobetzeko. Urte hasieran Udalak abian jarritako Jasangarritasun Energetikoaren Planaren baitan kokatzen dira aktuazio hauek, zeinak 110.000 euroko aurrekontua duen.

Zubizkitzan auzoko argiteria berritu da, LED teknologiako kale argiak jarrita. Fernandina motako 12 kale-argi berri jarri dira, zutabeei altuera handiagoa emanez eta kale-argi buruen potentzia handituz, argiteria hobetzeko. Aldi berean, auzoan egun zeuden "Villa" motako 23 kale-argi LED-era egokitu dira, hauen optika eta potentziak egokituz argiteria hobetze aldera. San Prudentzio auzoko atzeko kaleko argiteria hobetzeko lanak burutu dira. Horretarako 8 kale-argi aldatu dira, altuera gehiago emanez eta kale-argien potentzia handituz.

Udalak burutu duen herri argiteriko azterketa luminikoan oinarrituz, Plazako aparkaleku inguruko, Mikelar, San Jose eta San Prudentzio auzoetako kale-argiak LED-era aldatzea dira etorkizunean garatu nahi diren aktuazioak. Farolak Led teknologiara birmoldatzearen helburua Lazkao herri jasangarriago eta seguruago bihurtzea eta argiteria publikoa hobetzea da.

# El Ayuntamiento renueva luminarias en tres barrios de Lazkao por unas más sostenibles de tecnología LED

En los barrios de Gurutze y Zubizkitza el Consistorio ha reemplazado las luminarias exteriores por unas de tecnología LED y ha adecuado parcialemente las del barrio de San Prudencio para favorecer la sostenibilidad energética y mejorar el alumbrado de estos tres barrios.

Se ha instalado alumbrado de tecnología LED en Gurutze y Zubizkitza y se han sustituido las luminarias de San Prudencio para avanzar en la sostenibilidad energética y mejorar el alumbrado público. Estas actuaciones se enmarcan dentro del Plan de Sostenibilidad Energética puesta en marcha por el Ayuntamiento a principios de año, que cuenta con un presupuesto de 110.000 euros.

En Zubizkitza se ha renovado el alumbrado del barrio con la instalación de luminarias de tecnología Led. Se han instalado 12 nuevas farolas tipo Fernandina, aumentando la altura de las columnas y la potencia de los cabezales, mejorando asi la luminosidad del barrio. Al mismo tiempo, se han adaptado 23 farolas tipo "Villa" existentes en el barrio a tipo LED, adecuando su óptica y potencia.

En San Prudencio la actuación se ha centrado en la calle trasera: se han reemplazado 8 luminarias, colocándolas en una mayor altura y aumentando su potencia.

El objetivo del Ayuntamiento es continuar mejorando el alumbrado del municipio. Para ello, a principios de año se elaboró un Estudio Lumínico local. Las actuaciones que se pretenden desarrollar en el futuro son el cambio de las luminarias de la zona de aparcamiento de la Plaza y de los barrios Mikelar, San José y San Prudencio. La reconversión de las farolas a tecnología Led tiene como objetivo hacer de Lazkao un pueblo más sostenible y seguro, y mejorar el alumbrado público.

# Ireki da estali-gabeko igerilekua; bazkidetza epea zabalik

Igerilekuetara sartzeko aurretikako hitzordua hartzeko bazkide izan behar da, bestela egunean bertan dagokion sarrera ordainduz sartu ahal izango da lekua baldin badago. Igerileku estali-gabeetako bazkide kontsideratuko dira kiroldegiko bazkidetza plusa dutenak eta udako igerilekuetako bazkidetza egin dutenak. Udako igerilekuetako bazkidetza Lazkaon erroldatuta daudenak bakarrik egin ahal izango dute.

Bazkide bihurtzeko izen ematea online www.lazkao.eus -en, telefonoz, emailez edo presentzialki egin ahalko da, baina telematikoki egitea eskatzen da ahal izanez gero, segurtasuna bermatzeko

### Hitzorduarekin

**Igerilekuetara sartzeko eta edukiera kontrolatzeko, aurrez hitzordua eskatu beharko da. Adin guzietako bazkideek bakoitzak bere erreserba egin beharko du www.lazkao.eus webgunean ordu erreserbarako sortutako aplikazioan. Hitzordua aurrez eskatzeko lehentasuna bazkideek izango dute, eta bazkide ez direnek egunean bertan bakarrik egin ahalko dute erreserba.**



### Con cita previa

**La inscripción para ser socio se podrá realizar online en www.lazkao.eus, por teléfono, vía email o presencialmente, pero se pide hacerlo telemáticamente, si es posible, para garantizar la seguridad.**

# Abierta la piscina descubierta

Para poder coger cita previa para las piscinas descubiertas hay que ser socio, y, sino, se podrá hacer la reserva pagando la entrada correspondiente el mismo día, si el aforo lo permite. Se considerarán socios de las piscinas descubiertas los que tengan el plus de socio del polideportivo y los que se hayan hecho socios para las piscinas de verano. Se podrán hacer socios de la piscina de verano sólo las personas empadronadas en Lazkao.

# Lazkao *berdintasunera* bidean

Lazkaoko Udala berdintasun alorra indartzen ari da, berdintasun planaren lau esku-hartze eremuetatik abiatuta: gobernu ona, emakumeen ahalduntzea, ekonomiak eta gizarte-antolakuntza eraldatzea eta indarkeria matxistarik gabeko herria lortzea.

Ekintza plan bat garatu du Udalak gizon eta emakumeen* arteko berdintasun erreala lortzeko Lazkaon, bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialaren eremu guztietan.

Ekintza plan hau lantzearen helburua erakunde publikoetako langile guztiak prestatzea da, baita politikariak ere. Eremu profesional eta akademikotik, eta baita mugimendu feministatik ere, azpimarratzen dute garrantzitsua dela berdintasunerako politika publikoak ezartzeaz arduratzen diren langileak berdintasunean trebatuta egotea, modernizazio prozesua bermatzeko ezinbesteko baldintza bezala. Horretarako, Udaleko sail bakoitzaren beharrak aztertuko dira lehenik, eta formakuntza saioak emango zaizkie langileei.

Indarkeria matxistarik gabeko herriaren lanketa prebentzioan eta biktimei arreta integrala ematean oinarritzen da. Helburu nagusia da emakumeen ahalduntze sozial eta politikoa lantzea. Horretarako, herriko jaien antolakuntzan emakumeen parte hartzea sustatuko da, modu eraginkorrean parte hartzen duten molde guztietako talde, elkarte eta abarretan. Bestalde, garrantzitsua da jaietako kultur eskaintzan emakumeen presentzia bermatzea, eta baita herriko kultur ekitaldietan (antzerki, dantza, musika etab.) eskaintza feminista bultzatzea.

Indarkeria matxistaren prebentzioari, sentsibilizazioari eta salaketari laguntzea ere ardatz honen beste helburu bat da. Eraso sexistei aurre egiteko protokolo eta sentsibilizazio kanpainak indartuko ditu Udalak, eta, logika binarioa eta genero hegemonikoaren normatibotasunaren ondorioz LGTBIQ+ pertsonek pairatu dezaketen bazterketa eta marjinazioa ekiditeko ekintzak egingo dira, Zinegoak bezalako ekimenak, esaterako.

Lazkaoko Udalak argi dauka berdintasun erreala lortzeko bidean badagoela oraindik zer egin, baina pauso eraginkorrak eman nahi ditu Lazkao berdintasunean eraikitzeko eta herritar guztiak onartuak eta babestuak sentitu daitezen.



> ***Indarkeria matxistarik gabeko herriaren lanketa prebentzioan eta biktimei arreta integrala ematean oinarritzen da***



# Lazkao hacia la *igualdad*

El Ayuntamiento de Lazkao está reforzando el área de igualdad a partir de los cuatro ámbitos de intervención del plan de igualdad: el buen gobierno, el empoderamiento de las mujeres, la transformación de las economías y de la organización social, y la consecución de un pueblo libre de violencia machista.

El Ayuntamiento ha desarrollado un plan de acción para conseguir la igualdad real entre hombres y mujeres* en Lazkao en todos los ámbitos de la vida política, económica, cultural y social.

El objetivo de la elaboración de este plan es formar a todo el personal de las instituciones públicas, incluidos los políticos. Desde el ámbito profesional y académico, y también desde el movimiento feminista, subrayan la importancia de que el personal encargado de implementar las políticas públicas de igualdad esté formado en igualdad, como condición indispensable para garantizar el proceso de modernización. Para ello, se analizarán primero las necesidades de cada departamento del Ayuntamiento y se impartirán sesiones de formación al personal.

El eje de un pueblo libre de violencia machista se basa en la prevención y la atención integral a las víctimas. El objetivo principal es trabajar el empoderamiento social y político de las mujeres. Para ello, se fomentará la participación de las mujeres en la organización de las fiestas patronales, en grupos y asociaciones de todo tipo que participen de forma efectiva. Por otro lado, es importante garantizar la presencia de las mujeres en la oferta cultural de las fiestas, así como impulsar la oferta feminista en los actos culturales locales (teatro, danza, música, etc.).

Contribuir a la prevención, sensibilización y la denuncia de la violencia machista también es otro objetivo de este eje. El Ayuntamiento reforzará las campañas de sensibilización y el protocolo para hacer frente a las agresiones sexistas. También se llevarán a cabo acciones para evitar la exclusión y marginación de las personas LGTBIQ+ como consecuencia de la lógica binaria y la normalización del género hegemónico, como las iniciativas Zinegoak, por ejemplo.

El Ayuntamiento de Lazkao tiene claro que en el camino hacia la igualdad real hay todavía mucho por hacer, pero quiere dar pasos efectivos para construir Lazkao en igualdad y para que todos los ciudadanos se sientan aceptados y protegidos.

> ***El eje de un municipio libre de violencia machista se basa en la prevención y la atención integral a las víctimas***

# UDAKO Agenda

## UZTAILAK 16 OSTEGUNA:

**19:00**
Los Botxeros, Lazkao Txiki zelaian
Los Botxeros, en el zelai Lazkao Txiki

## UZTAILAK 18 LARUNBATA:

**19:00**
"BigBadMan" talde lazkaotarraren kontzertua, Skate parkean
Concierto del grupo lazkaotarra "BigBadMan" en el parque de Skate

## UZTAILAK 20 ASTELEHENA:

Udako zinea **19:00**etan eta **21,00**etan Lazkao Txiki plazan
Cine de verano a las **19:00** y a las **21:00** en la plaza Lazkao Txiki

## UZTAILAK 21 ASTEARTEA:

**19:00**
Kantaka abesbatzaren emanaldia, Lazkao Txiki plazan
Actuación de Kantaka abesbatza en la plaza Lazkao Txiki

## UZTAILAK 25 ETA 26:

II. Goilur Rallya
II Rally Goilur

## UZTAILAK 29 ASTEAZKENA:

**19:00**
Potxin eta Patxin pailazoak, Skate parkean
Los payasos Potxin y Patxin, en el parque de Skate
(Eguraldi txarra/En caso de mal tiempo: San Benito aterpea)

## UZTAILAK 30, OSTEGUNA:

**19:00**
Tolin el mariatxiren emanaldia Lazkao Txiki zelaian
Actuación de Tolin el Mariachi en el zelai Lazkao Txiki

## UZTAILAK 31 OSTIRALA:

**19:00**
"Mediana" taldearen emanaldia Skate parkean
Actuación del grupo "Mediana" en el parque de Skate

## UZTAILAREN 7, 14, 21, ETA 28AN (ASTEARTEAK):

**22:00**
Lazkaoko Gazte asanbladaren eskutik dokumetalak pilotalekuan
De la mano de la Gazte Asanblada de Lazkao documentales en el frontón

**Aforoa kontrolatuko da.
Sergurtasun distantzia bermatu eta maskara erabiltzea derrigorrezkoa izango da.**

**Se controlará el aforo.
Se garantizará la distancia de seguridad y el uso de mascarilla será obligatorio.**

LAZKAOKO UDALA